

Intxaurrondo

Barrea ahoan ibili munduan

Ostiral honetan, apirilak 30, Alvaro Neil pailazoak hitzaldia eskainiko du Intxaurrondoko Ipar Haizea elkartearen, 20:00etan, Ibiltariaren X. Astearen haritik. Neil-ek ia bi urte pasatu ditu Hego Ameriketara, herri txiroetako jendearen artean irribarra sortuz.

Lana utzi, autoa saldu eta, salmentarekin lortutako diruaz, bizikleta hartu eta Hego Ameriketara abiatu zen Alvaro Neil 2001. urteko urriaren 8an. Pailazo batek behar dituen tramankulu guztiak gainean zituela, Boliviara joan zen. Handik abiatuta, bizikletaz, 32.000 kilometro inguru egin zituen, bere ikuskizuna herri xumeetan eta hiriguneetatik urrun zeuden eskolatan eskainiz. Guztira, 592 egun pasatu zituen herririk herri jendartean irribarra zabalduz.

"Une batez arazoak ahazten eta lasai barre egiten lagundu nien 21.000 bat laguneri. Jende askorentzat harri garria zen, musutruk egiten bainuen. Barrearen garrantziaz ohartarazteaz gain, munduan haiekin gogoratzen den jendea ere badela jabe zitezen nahi nuen", dio Alvarok.

Hitzaldian, bidaian izandako pasadizo ugari entzuteko

aukera izango dute entzuleek. Hórretarako, bidaiari buruzko DVDa aurkeztuko du. Alvarok bidaia hartako bizipen bat, egoera aski ondo islatzen duena, aipatu digu: *"Peruko herri batera iristean ikusitakoa oso gogoan dut. Plazako zoruko harri guztiak zegokien lekutik aterata zeudela ikusi nuena, plaza noizko berrituko zuten galdetu nien herritarrei. Urtebete zeramatela horrela erantzun zidaten. Zoruko harri puska handiak hodiak jartzeko altxa zituztenean, harriak sailkatu ez, eta orain harriak nola jarri ez zekitela..."*.

Alvaro Neil abentura guztiak biltzen dituen liburua prestatzen ari da gaur egun. Liburuarekin, DVDarekin eta orain arte egindako ikuskizunekin biltzen duen diruarekin 80 astetan munduari bira emateko asmoa du, 2004ko azarotik aurrera. Informazio gehiago nahi izanez gero, www.biciclow.com helbidean.



Zeuk erabaki

Maiatzak

Babestu zure eskubideak

MANIFESTAZIOA
Alderdi Ederren
12:00etan



euskadiko langile komisioak